HITZ BITAN

GAZTELU PLAZAKO APARKALEKUAK. Istiluak

Espainiako Polizia gogor oldartu zitzaien lanen aurka protestan ari zirenei

Irene Arrizurieta | **IRUÑEA**

Iruñeko Gazteluko plazako lanekin ados ez dauden herritar asko atzo ere kalera atera ziren, euren haserrea azaltzera eta protesta egitera. Horien izenean, bi lagunek prentsaurrekoa eskaini zuten 20:00etan, plazan bertan. Tentsioa nabaria zen, ondoan baitzuten Espainiako Polizia.

Prentsaurrekoa eman zutenek argi utzi zuten ez zeudela han alderdi politikoen izenean, ez eta plataformaren izenean ere. Elkarretaratuek Iruñeko Udalari «duintasunez» tratatzeko eskatu zioten, eta ez direla «inozoak» ohartarazi. Astelehenean Jose Ignacio Labiano Iruñeko Hirigintza zinegotziak zuhaitzak ustelduta daudelako moztu direla argudiatu zuen, eta hiritarren segurtasuna bermatzeko hasi zirela lanak goizaldeko 04:30ean.

Prentsaurrekoa bukatu bezain laster, gazte talde bat hesituta zegoen Gazteluko plazara sartu zen, eta atzetik joan zitzaizkien ordurako han zeuden poliziak. Borrekin joz atera zituzten, eta haien kontra oldartu ziren. Bertaratuek alde egiteko oihukatu zieten behin eta berriro poliziei, Yolanda Barcina alkatearen aurkako garrasiak botatzen zituzten bitartean. Espainiako Poliziak, ordea, bertaratutakoen aurka gogor egiten jarraitu zuen.

Jendea txaloka, eta Polizia erasoan

Plazako portxeak eta terrazak mukuru zeuden, eta jendea altxatu eta protesta egiten ari zirenak txalotzen hasi zen. Hala ere, Poliziak Alde Zaharreko kaleetan pilotakadak botatzen eta jendea jotzen jarraitzen zuen. Txapitela eta Xabier Behera kaleetan barrenako joan-etorria etengabea izan zen.



JESUS DIGES / EFE
Istilu gogorrak izan ziren atzo Gaztelu plazan herritarren eta Poliziaren artean.

Beste talde bat plazaren beste aldeko hesiak botatzen hasi zen. Gero, jendea plazara sartzen hasi zen. Azkenean hesi guztiek lurrean bukatu zuten. Bitartean Poliziak bere ekinean jarraitzen zuen, eta bildutakoak kalejiran ibili ziren Gaztelu plazako kioskoari buelta emanez; bertako bankuetan eta kioskoan ere eseri ziren, «plaza hau okupatu egin behar dugu» oihukatuz. Udaltzainek ere entzun zituzten herritarren irainak, plaza inguratzen duen hesiaren alde batean zeudelako, eta jendea hesiak botatzen hastean alde egin zuten.

Iluntzean, Polizia erretiratu eta Gaztelu plazan zegoen jendeak festa giroari eutsi zion. Txistularien laguntzaz, *Zortzikoa* dantzatzen eta kalejiran aritu ziren, gaueko 22:00ak inguruan berriro Polizia agertu eta plazan bildutakoei oldartu zitzaien arte.

Aste honetara begira, egunero elkarretaratzera deitu dute, iluntzeko 20:00etan, Iruñeko Udalaren «gehiegikeria eta inposaketa» salatzeko.

ETXEBIZITZA

Lankidetza beharra nabarmendu dute Gasteizko alkateak eta Etxebizitza sailburuak bileran

Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen sailburu Joseba Azkarraga Gasteizko alkatearekin elkartu zen atzo, lehen aldiz Lakuan. Alfonso Alonso alkatearen esanetan, «Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza ezinbestekoa da». Elkarrizketaren bitartez, Gasteizko etxebizitzaren inguruko egitasmoak aurrera atera ahal izango direla adierazi zuen Alonsok. Azkarraga ere bat etorri zen Alonsoren esanekin: «Jaurlaritzak ezin du aurrera egin Udala alde batera utzirik; beraz, akordioak lortzen saiatu behar dugu». Alokairuko etxebizitza sozialak sustatzeko asmoa iragarri zuten biek.

EZBEHARRA

Igandean itsasoan galdutako gizonaren gorpua aurkitu du Ertzaintzak Hondarribian

Igandean galdutako A.R.G. 70 urteko gizonaren gorpua aurkitu zuen atzo Ertzaintzak, Hondarribian. Donostiako gizona Hondarribiko hondartzan ikusi zuten azkenekoz, bainu bat hartzera zihoala, eta geroztik haren bila zebiltzan. Ertzaintzaren helikopteroan zihoazen ertzainek ikusi zuten gorpua, itsasertzetik 15 metrora.


JOSEBA OLALDE
Inazio Oliveri eta Javier Retegi.

HEZKUNTZA

Inazio Oliveri izango da Mondragon Unibertsitateko errektore, Javier Retegiren ordez

Mondragon Unibertsitateko Errektoretza Kontseiluak atzo iragarri zuenez, Inazio Oliveri izango da unibertsitate horretako errektorea datorren urteko otsailaren 1etik aurrera. Iragan astea arte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu izandakoak Javier Retegi ordezkatuko du lan horretan. Retegik erretiroa hartuko du, eta Errektoretza Kontseiluak haren karguan Oliveri jartzea ebatzi zuen atzo.

BIDAIA

Bretoi, irlandar eta euskaldunek osatutako talde batek zeharkaldi bat egingo du Galiziara, larruzko ontzietan

Bretoiz, irlandarrez eta euskal herritarrez osaturiko 40 laguneko talde batek zeharkaldi bat egingo du Pasaiatik (Gipuzkoa) Poiora (Pontevedra), larruzko ontzietan. Irteera uztailaren 31n izango da, eta Erdi Aroan fraide zeltek egiten zuten itsaso bidezko ibilbide berbera egitea dute helburua. Pasaiako Albaola taldearen ekimenez antolatu dute bidaia, eta euskal itsas kultura berreskuratzeko asmoz ari dira lanean. Abuztuaren 23rako Galiziara iritsi eta, han, hiru eguneko festa egingo dute.

HOMOSEXUALITATEA

Gay taldeek Alonso «koldartzat» jo dute, PPren barnean homosexualen ezkontzen eztabaida ez bultzatzeagatik

Lesgaytegia, Gaztelesbos, Ala eta Gaytasuna taldeek «koldartzat» jo dute Alfonso Alonso Gasteizko alkatearen jarrera, PPren barnean bikote homosexualen ezkontzen inguruko eztabaida ez bultzatzeagatik. Talde horien aburuz, Alonsok «irudi bat ematea beste helbururik ez du», ez baitu ekintzen bidez ezer ere erakusten. Bestalde, Santiago Abascal PPko Nuevas Generacioneseko lehendakariak bikote homosexualak ezkondu ahal izateko Kode Zibila aldatu beharko litzatekeela adierazi du.

EUSKARA

Nafarroako Jaialdietan eta Kultur 2001 egitarauetan «dena gaztelania hutsean» dagoela salatu du EAk

EAk salatu du Nafarroako Gobernuak antolatzen dituen Nafarroko Jaialdietako eta Kultur 2001 udako kultur ekitaldietako egitarauak «gaztelania hutsean» daudela, eta ekitaldiok iragartzeko egin diren iragarkietan ere ez dela euskara ageri salatu du. EAren irudiko, UPNko gobernuak jarrera «gaiztoa» du euskararekin, eta hori Nafarroako elebidunentzako «errespetu falta ikaragarria da». Halaber, Nafarroako Kutxak udako prestatu ekitaldietan euskara ez dela «inon» ageri salatu du.

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea
ERREKTOREGOA
RECTORADO

LEHIAKETA PUBLIKOA
IRAKASLE LAGUNEN ETA BEHIN-BEHINEKO TITULARREN PLAZAK

UPV / Euskal Herriko Unibertsitateak deia egin du irakasle lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko. Lehiaketak, oinarriak eta plaza nahiz sailen ezaugarriak honako leku hauetan daude ikusgai: Lehiaketa, Ataleko irakargi - taulan: Errektoregoaren eraikina, 2. solairua Leioako Campusa (Bizkaia) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan: Ignacio Barriola Eraikinean, Elhuyar Plaza, 1 .-Donostia eta Arabako Campuseko Errektoreodetzan: Izardui komandantea K/2.-Gasteiz.
Instantziak aurkezteko epea 2001eko uztailaren 26an hasi eta abuztuaren 7an bukatuko da eta Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Leioako Campusa), edo lehen aipaturiko Campusetako Errektoreordetzetan. UPV / EHU-ren 2001eko martxoaren 19ko erabakian aipatzen dira bai bulego horiek bai Erregistro Orokor diren UPV / EHUko ikastegiak (2001eko apirilaren 2ko EHAA). Interneteko helbide honetan ere ikus daiteke zerrenda: www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html

Leioan, 2001eko uztailaren 25ean. Irakasleen Errektoreordea,
Victor Urrutia Abaigar